

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Mari Telletxea Lasa

*Irun, Gipuzkoa
(1937)*

Aurkibidea



Biografia

1937ko urriaren 3an jaio zen Joxe Mari, Irungo Olagarai baserrian, eta bertan bizi izan zen 26 urte bete bitarte. Seme bakarra izan da Joxe Mari. Gaztetan baserrian aritu bazen ere, Iberduerorentzat lanean hasi zen gero, eta langintza horri eutsi zion erretiroa hartu bitarte.

Iberduero enpresarentzat lanean aritutako lehen urteetan, argiaren prezioa kobratzen ibili zen Joxe Mari, etxerik-etxe; Irunen gehienbat, baina baita Hondarribian eta Gipuzkoan barrena ere. Lan bera egiteko hamaika modu ezagutu du Joxe Marik, eta hainbat urtetan zehar langintza izan duenari buruzko hainbat jakingarri eskaintzen ditu.



Biriatukoa zuen aita, eta baita aitaren gurasoak ere. Biriaturtik Irunera aldatzen lehena Joxe Mariren aitona izan zen, Kateako Ezurriki baserrira, morroi. Familia bertaratu zuen gero, eta handik Olagaraira aldatu ziren. Gogoan ditu Joxe Marik bere aiton-amonek esaten zituzten hainbat hitz (orgatxoa, kanita, ...), Irunen ezberdin esaten baitziren; hala ere, berak dio berdintsuak iruditu izan zaizkiola berari, funtsean, Biriaturko eta Irungo hizkerak.

Ama Irungo Bentetakoa zuen Joxe Marik, Katea auzokoa, Otazpi baserrikoa. Otazpi baserria koartela egiteko bota zuten gero.

Joxe Marik txakurrarekin ehizera joatea izan du beti zaletasun, eta gai horri buruzko kontuak ere aipagai ditu, beste askoren artean.

Zintak

IRN-047

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazkin, Aitor
- **Data:** 2015-08-07
- **Iraupena:** 79 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Errazkin, Aitor

Pasarteak

1. "Hi, argitakua!"

- **Erref:** IRN-047/001
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:

Joxe Marik ez du sekula ezizenik izan, berak dakiela, behintzat, baina Iberduerorentzat argiaren prezioa etxez etxe kobratzen ibiltzen zelarik, "argitakua" esaten omen zioten Hondarribian.

2. Olagarain bordari

- **Erref:** IRN-047/003
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:01:48. **Bukatu:** 00:02:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Olagarai baserrian bizi izan zen Joxe Mari gurasoekin, baina bordariak ziren, maizterrak, eta denborarekin, baserriaren terreno zati bat erosi eta etxea altxa zuten. Bertan bizi izan da Joxe Mari.

3. Ama irundarra eta Biriaturkoa aita

- **Erref:** IRN-047/005
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:03:00. **Bukatu:** 00:05:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Katea auzokoa zuen ama, Irundarra, eta Biriaturkoa aita. Aitona bigarren mundu gerran parte hartu beharretik ihesi igaro zen Biriaturtik Irunera, eta Kateako Ezurriki baserrian jarri ziren bizitzen, morroi. Emaztea eta 5 seme-alaba ekarriko zituen gero.

4. Desertoreen seme-alabek eskolarik ez

- **Erref:** IRN-047/006
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:05:25. **Bukatu:** 00:07:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Joxe Mariren aitona, 5 seme-alabaren aita zela, II. mundu gerran parte hartzeari uko egin, eta Biriaturtik Irunera igaro zen. Hori dela eta, desertoretzat jo zuen Frantziako gobernuak, eta Biriatur bizi ziren seme-alabei eskola ukatu zieten. Azkenetako, Joxe Mariren aitona zenaren emaztea eta 5 seme-alabak ere igaro ziren Irunera, eta Ezurriki baserrian bizi izan ziren Olagarai baserrira aldatu ziren arte.

5. Baserritik kalera lanera

- **Erref:** IRN-047/008
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:07:47. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Baserrian lanean ari izan zen Joxe Mari gaztetan. Galdarategi batean hasi zen lanean gero, eta 25 urte inguru zituela, Iberduerorentzat.

6. Iberdueron lanean

- **Erref:** IRN-047/009
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:09:00. **Bukatu:** 00:12:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Argiaren prezioa kobratzen ibiltzen zen Joxe Mari. Hura nolako lana izaten zen kontatzen du. Hondarribian ibili izan zen gehienbat, baina bulegoa Irunen zuten, ordea.

7. Hondarribia handitzen ikusitakoa

- **Erref:** IRN-047/010

- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:12:18. **Bukatu:** 00:13:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura

Laburpena:

1965 urte inguruan hasi zen Hondarribian lanean joxe Mari, eta ordutik jubilatuta bitartean Hondarribian etxe asko eraikitzen ikusi zuen Joxe Marik; hazkunde nabarmena.

8. 18 urte Irungo Iberdueroko lehiatilan

- **Erref:** IRN-047/011
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:13:54. **Bukatu:** 00:15:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Iberdueroren Irungo bulegoko lehiatilako lana lortu zuen Joxe Marik, eta 18 urte eman zituen lan horretan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com